

**Resolución nº 1918/2020, de 12 de noviembre**, del Presidente de la Comisión de Investigación de la Universidad Pública de Navarra, por la que se convocan elecciones parciales a la Comisión de Investigación, de un representante de cada uno de los grupos de los ámbitos de conocimiento siguientes:

- Ciencias Sociales
- Derecho y Humanidades
- Economía y Empresa
- Ingeniería Industrial
- Matemáticas

En cumplimiento del artículo 68 de los Estatutos de la Universidad, donde se establece que cada dos años se procederá a la renovación de la mitad de los miembros de la Comisión de Investigación, se procede a realizar la convocatoria de elecciones parciales a la Comisión de Investigación de un representante de cada uno de los grupos de ámbitos de conocimiento mencionados.

Por lo expuesto, de acuerdo con lo establecido en el artículo 51.1 de los Estatutos de la Universidad Pública de Navarra, y en los artículos 9 y 52 del Reglamento Electoral de la Universidad.

HE RESUELTO

Primero. - Convocar elecciones parciales a la Comisión de Investigación de un representante de cada uno de los grupos de los ámbitos de conocimiento siguientes:

- Ciencias Sociales
- Derecho y Humanidades
- Economía y Empresa
- Ingeniería Industrial
- Matemáticas

que se celebrarán el **16 de diciembre de 2020**, en horario **de 10 a 14 horas**, de acuerdo con el calendario electoral que figura como Anexo.

Segundo. - El seguimiento del desarrollo de este proceso electoral será competencia de la Junta Electoral Local de la Comisión de Investigación que está integrada por los siguientes miembros:

Presidenta: Dra. D<sup>a</sup>. Paloma Virseda Chamorro  
Vicepresidente: Dr. D. Jesús Oliva Serrano  
Secretario: Dr. D. Pedro Pascual Arzoz

Tercero. - En las presentes elecciones serán electores y elegibles los siguientes miembros de la comunidad universitaria:

- 1.- Electores: serán electores todos los profesores doctores con vinculación permanente, en razón de su afinidad al grupo.
- 2.- Elegibles: serán elegibles los profesores doctores con vinculación permanente que, en razón de su afinidad, pertenezcan al grupo y hayan obtenido y acrediten, como mínimo, dos evaluaciones positivas de la actividad investigadora.

Cuarto. - Cuando el número de candidatos presentados sea igual al de puestos a cubrir, la Junta Electoral Local los proclamará automáticamente electos sin necesidad de votación.

En ausencia de candidaturas presentadas, resultará designado representante el que resulte de un sorteo hecho por la Junta Electoral Local sobre la totalidad del censo definitivo.

Quinto. - Cada elector podrá dar su voto como máximo a un candidato como representante a elegir por el grupo de ámbito de conocimiento al que esté adscrito.

Sexto. - La elección de los representantes se llevará a cabo mediante un sistema mayoritario simple, resultando elegidos los candidatos más votados dentro de cada grupo.

Séptimo. - Serán elegidos por un periodo de cuatro años, y cada dos años se procederá a la renovación de la mitad de sus miembros, en la forma que determine el reglamento de régimen interno de la Comisión de Investigación.

Octavo. - La campaña electoral se iniciará a las cero horas del día **10 de diciembre** y finalizará a las veinticuatro horas del día **15 de diciembre de 2020**.

Noveno. - Publicar la presente Resolución en el tablón electrónico de la Universidad Pública de Navarra.

Décimo. - Comunicar la presente Resolución al Presidente de la Junta Electoral Central, a la Presidenta de la Junta Electoral Local, al Presidente de la Comisión de Investigación y al Director del Servicio de Investigación.

Undécimo. - La presente resolución, a tenor de lo dispuesto en el artículo 6 de la Ley Orgánica de Universidades, agota la vía administrativa, pudiendo interponerse con carácter potestativo recurso de reposición ante el Rector o, directamente, recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Navarra, en el plazo de un mes en el primer caso y de dos meses en el segundo, contados ambos desde el día siguiente a la publicación de la misma.

Pamplona, a 12 de noviembre de 2020



Francisco J. Arregui San Martín  
Presidente de la Comisión de Investigación

**1918/2020 Ebazpena, 2020ko azaroaren 12koa**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketa Batzordeko buruak emana. Haren bidez, hauteskunde partzialetarako deialdia egiten da Ikerketa Batzordeko jakintza-arlo hauetako ordezkari bana aukeratzeko:

- Gizarte Zientziak
- Zuzenbidea eta Giza Zientziak
- Ekonomia eta Enpresa
- Industria Ingeniaritza
- Matematika

Unibertsitatearen Estatutuetako 68. artikulua ezartzen duena betez, non ezartzen baita bi urtean behin Ikerketa Batzordeko kideen erdiak berrituko direla, Ikerketa Batzordeko hauteskunde partzialetarako deialdia egin da, aipatu diren jakintza-arloko talde hauetako ordezkari bana aukeratzeko.

Azaldutakoagatik, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuetako 51.1 artikuluan eta Unibertsitateko Hauteskunde Arautegiko 9. eta 52. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik,

**EBAZTEN DUT:**

Lehenbizikoa.- Ikerketa Batzordeko jakintza-arloko talde hauetako ordezkari bana aukeratzeko hauteskunde partzialetarako deialdia egitea:

- Gizarte Zientziak
- Zuzenbidea eta Giza Zientziak
- Ekonomia eta Enpresa
- Industria Ingeniaritza
- Matematika

Hauteskundeak **2020ko abenduaren 16an** egingen dira, **10:00etatik 14:00etara**, honi erantsita dagoen hauteskunde egutegiaren arabera.

Bigarrena.- Ikerketa Batzordearen Hauteskunde Batzorde Lokalari dagokio prozesu honen jarraipena egitea, eta honako kide hauek osatzen dute:

Batzordeburua: Paloma Virseda Chamorro dk. and.

Batzordeburuordea: Jesús Oliva Serrano dk. jn.

Idazkaria: Pedro Pascual Arzoz dk. jn.

Hirugarrena.- Hauteskunde hauetan, hautesle eta hautagai izanen dira unibertsitate komunitateko kide hauek:

1.- Hautesleak: talde bakoitzean hautesleak izanen dira lotura iraunkorra duten irakasle doktore guztiak, taldearekin duten afinitatearen arabera.

2.- Hautagaiak: hautagaiak izanen dira lotura iraunkorra duten irakasle doktoreak, baldin eta, beren afinitatearen arabera, talde horretakoak badira, eta gutxienez ikerketa-jardunaren bi ebaluazio positibo lortu eta egiaztatuta badute.

Laugarrena.- Aurkezturiko hautagaien kopurua eta bete beharreko postuen kopurua berdinak badira, Hauteskunde Batzorde Lokalak automatikoki aldarrikatuko ditu hautetsi, bozketarik egin beharrik gabe.

Hautagairik aurkeztu ez bada, Hauteskunde Batzorde Lokalak zozketa egingen du behin betiko erroldako kide guztien artean, eta aukeratua dena izendatuko da ordezkari.

Bosgarrena.- Hautesle bakoitzak ordezkari bati gehienez ematen ahalko dio botoa atxikita dagoen jakintza-arloko taldean.

Seigarrena.- Ordezkarien hautaketa gehiengo sinplearen sistemaren bidez egingen da, eta talde bakoitzean boto gehien lortzen dituzten hautagaiak izanen dira hautetsiak.

Zazpigarrena.- Lau urteko eperako hautatuko dituzte, eta bi urtean behin bere kideen erdiak berrituko dituzte Ikerketa Batzordearen barne eraentzako araudiak ezarritako moduan.

Zortzigarrena.- Hauteskunde kanpaina **2020ko abenduaren 10ean** hasiko da, 00:00etan, eta **2020ko abenduaren 15ean** bukatu, 24:00etan.

Bederatzigarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitaratzea.

Hamargarrena.- Ebazpen hau Hauteskunde Batzorde Nagusiko buruari, Hauteskunde Batzorde Lokaleko buruari, Ikerketa Batzordeko buruari eta Ikerketa Zerbitzuko zuzendariari aditzera ematea.

Hamaikagarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, Unibertsitatei buruzko Lege Organikoko 6. artikulua xedatzen duenaren arabera, eta zilegi da berraztertze errekurtsoa aurkeztea errektoreari zuzendua, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, hilabeteko epean lehenbiziko kasuan, eta bi hilabeteko epean bigarrenetan, biak ere, ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Iruñean, 2020ko azaroaren 12an



Francisco J. Arregui San Martín  
Ikerketa Batzordeko burua

<b>CALENDARIO PARA LAS ELECCIONES PARCIALES A LA COMISIÓN DE INVESTIGACIÓN DE 2020</b>		<b>IKERKETA BATZORDERAKO 2020ko HAUTESKUNDE PARTZIALETARAKO EGUTEGIA</b>	
Publicación de la convocatoria de elecciones, y del calendario electoral	<b>16 de noviembre</b> La convocatoria y el calendario electoral se publicarán en el tablón electrónico de la Universidad Pública de Navarra y se mantendrán hasta la finalización del proceso	Hauteskundeen deialdia eta egutegia argitaratzea	<b>Azaroak 16</b> Deialdia eta hauteskunde egutegia Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki ohol elektronikoan argitaratuko dira eta prozesua bukatu arte mantenduko dira
Exposición censos provisionales	<b>Del 17 al 19 de noviembre</b> Se facilitará a los interesados a través del tablón electrónico comprobar su inclusión o no en los censos provisionales y estos se mantendrán hasta que se publiquen los censos definitivos	Behin-behineko erroldak jendaurrean jartzeko egunak	<b>Azaroaren 17tik 19ra</b> Iragarki ohol elektronikoaren bidez, behin-behineko erroldetan agertzen diren edo ez egiaztatzeko aukera emango zaie interesdunei eta behin betiko erroldak argitaratu arte mantenduko dira behin-behineko erroldak
Reclamación contra censos provisionales	<b>Del 17 al 19 de noviembre</b> Los interesados podrán formular reclamaciones	Behin-behineko errolden aurkako erreklamazioak	<b>Azaroaren 17tik 19ra</b> Interesdunen erreklamazioak
Resolución reclamaciones contra censos provisionales y publicación censos definitivos	<b>23 de noviembre</b> Se facilitará a los interesados a través del tablón electrónico comprobar su inclusión o no en los censos definitivos	Behin-behineko errolden aurkako erreklamazioak ebaztea, eta behin betiko erroldak argitaratzea	<b>Azaroak 23</b> Iragarki ohol elektronikoaren bidez, behin-betiko erroldetan agertzen diren edo ez egiaztatzeko aukera emango zaie
Presentación candidaturas	<b>Del 24 al 27 de noviembre</b>	Hautagaitzak aurkeztea	<b>Azaroaren 24tik 27ra</b>
Proclamación candidaturas provisionales	<b>1 de diciembre</b>	Behin-behineko hautagaitzak aldarrikatzea	<b>Abenduak 1</b>
Reclamación contra proclamación candidaturas provisionales	<b>Del 2 al 4 de diciembre</b>	Behin-behineko hautagaitzen aldarrikapenaren aurkako erreklamazioak	<b>Abenduaren 2tik 4ra</b>
Resolución reclamaciones contra proclamación de las candidaturas provisionales y proclamación de las candidaturas definitivas	<b>9 de diciembre</b>	Behin-behineko hautagaitzen aldarrikapenaren aurkako erreklamazioak ebaztea, eta behin betiko hautagaitzak aldarrikatzea	<b>Abenduak 9</b>

Campaña Electoral	Del 10 al 15 de diciembre	Hauteskunde kanpaina	Abenduaren 10etik 15era
<b>VOTACIÓN</b>	<b>16 DE DICIEMBRE</b> Campus Arrosadia De 10 a 14 horas	<b>BOZKETA</b>	<b>ABENDUAK 16</b> Arrosadiko campusa 10:00etatik 14:00etara
Escrutinio General, resolución reclamaciones Mesas Electorales, y publicación acta escrutinio general junto con la proclamación provisional de electos.	17 de diciembre	Boto-zenbaketa orokorra, Hauteskunde Mahaietako erreklamazioak ebaztea, eta boto-zenbaketa orokorraren akta jendaurrean jartzea, hautatuen behin-behineko aldarrikapenarekin batera.	Abenduak 17
Reclamaciones contra la proclamación provisional de electos	18 y 21 de diciembre	Hautatuen behin-behineko aldarrikapenaren aurkako erreklamazioak	Abenduaren 18an eta 21ean
Resolución reclamaciones contra la proclamación provisional de electos y proclamación definitiva de electos	22 de diciembre	Hautatuen behin-behineko aldarrikapenaren aurkako erreklamazioak ebaztea, eta hautatuak behin betiko aldarrikatzea	Abenduak 22

**NOTA:** Los Censos Provisionales se expondrán para su consulta en el tablón de anuncios electrónico de la sede electrónica de la Universidad Pública de Navarra.

Las reclamaciones, solicitudes y candidaturas deberán presentarse en los Registros de la Universidad antes de las 14:00 horas de la fecha correspondiente dirigidas a la Presidenta de la Junta Electoral Local, mediante instancia general.

En la presentación de candidaturas, además de manifestar la voluntad de presentarse como candidato, consignando sus datos personales, deberá adjuntar copia del D.N.I., pasaporte, carné de la Universidad o carné de conducir, en el que conste fotografía.

Los candidatos, además de constar en el censo definitivo, deberán cumplir el requisito de ser profesores doctores con vinculación permanente a la Universidad Pública de Navarra, adscritos al Grupo de Área correspondiente, que hayan obtenido y acrediten, como mínimo, dos evaluaciones positivas de la actividad investigadora.

**OHARRA:** Behin-behineko erroldak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki ohol elektronikoa jarriko dira kontsultatzeko.

Erreklamazioak, eskaerak eta hautagaitzak Unibertsitateko Erregistroetan aurkeztuko dira, dagokion eguneko 14:00ak baino lehen, Hauteskunde Batzorde Lokaleko buruari aurkeztutako eskabide orokorraren bidez.

Hautagaitza aurkeztean, hautagai izateko borondatea adierazteaz gain, datu pertsonalak emanaz, NANaren, pasaportearen, Unibertsitateko txartelaren edo gidabaimenaren kopia argazkiduna aurkeztu beharko da.

Hautagaiak, behin betiko erroldan egoteaz gain, lotura iraunkorra duten Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle doktoreak izanen dira, dagokion jakintza arloari atxikiak. Egiaztatu behar dute ikerketa jardunaren bi ebaluazio positibo eduki dituztela, gutxienez.